

Euskal AEn, ibilgailuen merkataritzaren eta konponketaren sektorean negozio-zifra %12,1 igo da 2022an

Txikizkako merkataritza txikienak, bederatzi langile baino gutxiagokoak, presentzia galdu du establezimendu handienen mesedetan

2022an, Merkataritza eta ibilgailuen konponketa sektoreak 40.927 milioi euro fakturatu zituen, 2021ean baino 4.407 milioi gehiago, hau da, %12,1eko igoera, Eustaten datuen arabera.

34.795 establezimenduk jardun zuten sektore horretan, aurreko urtean, 2021ean, baino %3,1 gutxiagok. Landunen kopurua apur bat jaitsi da, 2022an 128.160 izan baitira enplegatuak, 2021ean baino %0,5 gutxiago. Horrela, joan den hamarkadan hasitako joera motela, baina beheranzkoa, jarraitzen du. Horrela, 2010. urtearekin alderatuta, enpleguan %6,6ko beherakada metatu da.

Aldi berean, lan egindako orduen kopurua ere %3,4 murriztu da aurreko urtearekin alderatuta, baina %12,6ra arte 2010. urtearekin alderatuta, eta 2022an urte hartatik aurrerako gutxienekoa izan da.

Hala ere, langile-kostuak %6,3 igo dira, eta 2022rako 3.993 milioi euroko balio nominala ezarri da, ezagutzen den serie historikoaren maximoa.

Salmenten gaineko merkataritza-marjina – merkataritza-marjina gordinak birsaltzeko salgaien salmenta garbien balioarekiko duen proportzioa – sektore osoak lortu zuen %22,1ekoa izan zen, 2021ekoa baino ehuneko 0,2 puntu txikiagoa, eta, ondorioz, 2010az geroztik izandako alderik txikiena, hiru adarren arteko aldeekin.

Euskal AEko merkataritza- eta ibilgailuen konponketa-sektoreko aldagai nagusiak, lurralde historikoaren arabera (mila euro). 2022

	Euskal AE	Gehikuntza % 2021-2022	Araba/Álava	Gehikuntza % 2021-2022	Bizkaia	Gehikuntza % 2021-2022	Gipuzkoa	Gehikuntza % 2021-2022
Landunkopurua NU	128.160	-0,5	19.271	1,4	67.028	-0,8	41.861	-1,0
Negozio zifren zenbatekoa guztira	40.927.280	12,1	7.228.431	16,4	21.006.400	11,5	12.692.449	10,6
Hornidurak	31.431.740	14,5	5.610.136	19,8	16.143.426	13,9	9.678.178	12,5
Pertsonal gastuak	3.993.129	6,3	611.604	8,7	2.058.336	5,6	1.323.189	6,3
Ekitaldiaren emaitza	1.677.036	-9,1	443.607	9,5	749.090	-14,9	484.339	-13,4
Merkataritzamarjina salmenten aldean % (*)	22,1	-0,9	21,5	-5,4	22,0	-0,6	22,7	1,3

(*) Aldea portzentajeazko puntutan

Data 2024ko Apirilaren 26a

Iturria: Eustat. Merkataritzaren eta konponketaren inkesta

Lurralde Historikoka

Lurraldeka, Arabak ditu adierazlerik onenak. Lurralde horretan %16,4 gehitu dira salmentak eta enplegua ere zertxobait gehitu da (%1,4); bestalde, Bizkaian negozio-zifra %11,5 gehitu da, eta horrek eragin negatiboa izan du enpleguan (%-0,8); Gipuzkoan, berriz, %10,6 igo da fakturazioan, baina pertsonalean %1 jaitsi da.

2022an, Bizkaiak 21.006 milioi euro fakturatu zituen, guztizkoaren %51,3, Gipuzkoak 12.692 milioi, %31,0, eta 7.228 milioi Arabak, Euskal AEren %17,7.

Aldi berean, langile-gastuak %8,7 igo ziren Araban, %6,3 Gipuzkoan eta %5,6 Bizkaian.

Salmenten gaineko merkataritza-marjina ehuneko 1,3 puntu igo da Gipuzkoan, baina beste bi lurraldeetan jaitsi egin da, Araban ehuneko 5,4 puntu jaitsi da eta Bizkaian 0,6 puntu jaitsi.

Dibisioak

Ibilgailuen Merkataritza eta Konponketa osatzen duten hiru dibisioak dira Ibilgailuen Salmenta eta Konponketa, Handizkako Merkataritza eta Txikizkako Merkataritza. 2022an fakturatutako bolumenari dagokionez, bilakaera positiboa izan dute hirurek, intentsitate desberdinarekin bada ere. Aldiz, enpleguaren joera ez da hain aldekoa, eta *Handizkako merkataritzan* bakarrik mantendu ahal izan da aurreko urteko zifretan, beste bi dibisioek langile okupatuak lagatzen zituzten bitartean.

Txikizkako merkataritza da ugariena, bai langileei dagokienez (sektoreko enpleguaren %59,1 hartu du), bai establezimenduei dagokienez (sektorearen %63,2). Sektorerik horrek guztizkoaren %34,2 fakturatu zuen, eta negozio-zifra %7,4 gehitu zen, baina enpleguak pixka bat behera egin zuen (%0,6).

Euskal AEko merkataritza- eta konponketa-sektoreko aldagai nagusiak, jarduera-taldearen arabera (milaka euro). 2022

	Landun-kopurua			Fakturazioa			Merkataritza marjina
	Balioa	guztizkoaren gaineko %	Gehikuntza % 2021-2022	Balioa	guztizkoaren gaineko %	Gehikuntza % 2021-2022	Balioa
MERKATARITZA ETA KONPONKETA	128.160	100,0	-0,5	40.927.280	100,0	12,1	22,1
Ibilgailuen salmenta eta konponketa	11.776	9,2	-2,0	3.199.173	7,8	2,5	20,2
Ibilgailuak saltzea	3.740	31,8	-5,2	1.808.566	56,5	-4,2	14,2
Motordun ibilgailuak iraurazi eta konpontzea	6.342	53,9	2,2	846.408	26,5	16,1	.
Ibilgailu motordunen ordezko piezen eta osagarrien merkataritza	1.480	12,6	-9,6	499.753	15,6	9,1	28,8
Motozikleten salmenta, mantentze-lana eta konponketa	214	1,8	-4,5	44.446	1,4	-6,3	25,5
Handizkako merkataritza eta bitartekariak	40.599	31,7	0,0	23.720.840	58,0	16,5	19,7
Merkataritzako bitartekariak	4.581	11,3	1,0	532.971	2,2	23,4	.
Nekazaritzako lehengaien eta animalia bizien handizkako merkataritza	473	1,2	2,2	402.612	1,7	3,7	12,7
Elikagaien, edarien eta tabakoaren handizkako merkataritza	9.372	23,1	-1,4	4.729.603	19,9	9,1	19,3
Etxean erabiltzeko artikuluen handizkako merkataritza	6.134	15,1	-1,4	3.137.965	13,2	5,7	25,8
Informazioaren teknologietarako eta komunikazioetarako ekipoen handizkako merkataritza	1.396	3,4	2,2	1.010.639	4,3	5,4	15,6
Beste makineria, ekipa eta hornidura batzuen handizkako merkataritza	7.758	19,1	1,6	2.837.276	12,0	16,9	27,7
Especializatutako handizkako beste salerosketak batzuk	9.903	24,4	0,2	10.584.127	44,6	24,5	16,8
Especializatu gabeko handizkako merkataritza	982	2,4	1,4	485.647	2,0	39,5	24,4
Txikizkako merkataritza	75.785	59,1	-0,6	14.007.267	34,2	7,4	26,6
Saitoki ez-espezializatuak	25.281	33,4	-0,3	5.187.106	37,0	7,7	23,7
Elikagaien, edarien eta tabakoaren handizkako merkataritza	12.494	16,5	-1,4	1.849.527	13,2	4,2	22,8
Ibilgailu industriarako erregaien txikizkako merkataritza	2.080	2,7	1,7	1.629.793	11,6	27,5	6,5
Informazioaren teknologietarako eta komunikazioetarako ekipoen txikizkako merkataritza establezimenduetan	1.916	2,5	0,2	270.500	1,9	8,2	26,1
Etxean erabiltzeko beste artikuluen txikizkako merkataritza	7.773	10,3	-3,4	1.301.331	9,3	-1,1	34,8
Kulturarako eta aisialdirako artikuluen txikizkako merkataritza	3.627	4,8	-2,2	497.399	3,6	-1,0	28,4
Beste artikuluen txikizkako merkataritza establezimenduetan	20.336	26,8	0,3	2.987.384	21,3	5,5	39,2
Txikizkako merkataritza salmenta postuetan eta azoka txikietan	801	1,1	6,2	58.753	0,4	32,4	33,7
Establezimenduetan eta azoka txikietan egiten ez den txikizkako merkataritza	1.477	1,9	-0,6	225.474	1,6	-0,8	47,6

Data 2024ko Apirilaren 26a

Iturria: Eustat. Merkataritzaren eta konponketaren inkesta

Handizkako merkataritza eta bitartekariak, sektoreko salmenten %58,0 eta enpleguaren %31,7 9.699 establezimendutan banatuta, negozio-zifraren bilakaera positiboena erakusten duen dibisioa da. Negozio-zifra %16,5 egin zuen gora, eta langile okupatuak ia berdin geratu ziren: 40.599 pertsona.

Ibilgailuen salmenta eta konponketak ere bilakaera positiboa erakusten du negozio-zifran, %2,5eko hazkundearekin fakturazio-bolumenean eta langileen %2,0ko jaitsierarekin. Atal honek enpleguaren %9,2 xurgatzen du 2022an, 3.102 establezimendutan kontzentratzen dena, eta merkataritza osoaren fakturazioaren %7,8.

Merkataritza-marjina aztertuz gero, ikusten da **Txikizkako merkataritzak** salmenten gaineko %26,6ko merkataritza-marjina lortu zuela, 2021ean baino ehuneko 1,0 puntu gutxiago. **Handizkako merkataritzan** %19,7koa izan zen, 0,5 puntu gehiago; **Ibilgailuen salmenta eta konponketa** dibisioaren marjina, berriz, %20,2koa izan zen, aurreko ekitaldian baino ehuneko 0,6 puntu gehiago.

Establezimenduen tamaina

Merkataritza eta konponketa sektoreko establezimenduen tamainaren arabera, geruzarik txikienak, 1 eta 9 langile bitartekoek, fakturazioa %8 igo dute, baina enplegua (%-1,6) eta establezimenduen kopurua (%-3,4) jaitsi egin dira. Hamar-berrogeita bederatzi enpleguko geruzak hiru adierazleak gehitu ditu: negozio-zifra %18,4 hazi da, langileak %2,6 eta establezimenduen kopurua %2,5. Bestalde, berrogeita hamar pertsonatik gorako geruzaren fakturazioak %6,3 egin du gora, enpleguak %2,9 egin du behera eta establezimendu-kopuruak ere %3,4 egin du behera, 2021arekin alderatuta.

Euskal AEko merkataritza- eta ibilgailuen konponketa-sektoreko aldagai nagusiak, enplegu-geruzaren arabera (mila euro). 2022

	Establezimendu kopurua			Landun-kopurua			Fakturazioa		
	Balioa	gutxizkoaren gaineko %	Gehikuntza % 2021-2022	Balioa	gutxizkoaren gaineko %	Gehikuntza % 2021-2022	Balioa	gutxizkoaren gaineko %	Gehikuntza % 2021-2022
GUZTIRA	34.795	100,0	-3,1	128.160	100,0	-0,5	40.927.280	100,0	12,1
Batetik 9ra	32.559	93,6	-3,4	69.542	54,3	-1,6	15.599.658	38,1	8,0
10etik 49ra	2.067	5,9	2,5	39.445	30,8	2,6	18.173.314	44,4	18,4
50 edo gehiago	169	0,5	-3,4	19.173	15,0	-2,9	7.154.308	17,5	6,3

Data 2024ko Apirilaren 26a

Iturria: Eustat. Merkataritzaren eta konponketaren inkesta

Txikizkako merkataritza txikiak, bederatzi langile baino gutxiagokoak, establezimenduen %19,5 eta enpleguaren %11,9 galdu ditu 2015etik

Txikizkako merkataritzan arreta jarrita, eta denbora-ikuspegi zabalago batetik, azpimarratzekoa da 2015. urteaz geroztik establezimendu-kopuruak nabarmen egin duela behera. . Izan ere, 8 urtetan soilik, ia bost mila establezimendu galdu dira (4.907), hasierako 26.901 establezimenduetatik 2022ko 21.994 establezimenduetara igaroz, hau da, % 18,2ko murrizketa.

Enpleguak ere okerrera egin badu ere (1.957 langile gutxiago), ez du enfasi berarekin egin, eta % 2,5eko jaitsiera erlatiboa izan du 2015aren aldean. Hala ere, horrek guztiak ez du eragotzi azken 8 urteetan negozio-zifrak % 8,8 gora egitea, termino nominaletan.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren dibisioko aldagai nagusiak urtearen arabera, enplegu-geruzaren arabera (mila euro). 2015-2022

	Establezimendu kopurua				Landun-kopurua				Fakturazioa			
	Guztira	Batetik 9ra	10etik 49ra	50 edo gehiago	Guztira	Batetik 9ra	10etik 49ra	50 edo gehiago	Guztira	Batetik 9ra	10etik 49ra	50 edo gehiago
2015	26.901	26.056	765	80	77.742	50.792	14.547	12.403	12.869.366	7.591.662	2.933.957	2.343.747
2022	21.994	20.988	901	105	75.785	44.760	17.257	13.768	14.007.267	6.635.591	4.362.910	3.008.766

Data 2024ko Apirilaren 26a

Iturria: Eustat. Merkataritza eta konponketaren gaineko inkesta

Hala ere, joera hori desberdina da establezimenduen tamainaren arabera.

Egia esan, tamaina txikiagoko establezimenduen gainbeheraren ondorio da, hau da, bederatzi enplegu baino gutxiagokoen gainbeheraren ondorio. Hala, 2015etik 2022ra bitarteko aldian, %19,5 establezimendu gutxiago izan dira, eta %11,9 langile gutxiago – 6.032 pertsona – enplegu-tarte horretarako. Aldi berean, negozio-zifra %12,6 murriztu da.

Aitzitik, bederatzi langile baino gehiagokoek, oro har, lehenengoek eragindako enplegu-galera xurgatzen dute neurri handi batean, aldi horretan 4.075 enplegu berri sortu baitira, %15,1 gehiago. Era berean, bederatzi enplegutik gorako establezimenduen negozio-zifrak %39,7 egin du gora, eta 7.372 milioi eurora iritsi da 2022an, 2015ean 5.278 milioi euroekin alderatuta; horrela, bederatzi enplegutik beherako establezimenduek 956 milioi galdu dituzte aztertutako zortzi urteetan, baina bederatzitik gorakoek 2.094 milioi euro irabazi dituzte.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62